


## MOZIO ALTERNATIBOA. ADIF ETA RENFE ZERBITZUAK

1. Legazpiko Udalak egungo trenbide-sarean egiten ari diren obren garrantzia azpimarratu nahi du, penintsularen erdialdea Gipuzkoarekin, Iparraldearekin eta Europarekin lotuko baitu. Garraio eta Mugikortasun Iraunkorreko Ministerioaren inbertsioek 200 milioi euro inguruko balioa izango dute Gipuzkoako tarte osoan, eta horrek erakusten du gure Lurralte Historikoa zeharkatzen duen trazaduran trenbide-azpiegiturak modernizatzeko prozesua.
2. Legazpiko Udalak trenbidea modernizatzeko eta Europako estandarretara egokitzeko obra garrantzitsuak aintzatetsi eta balioetsi ditu, Ministerioak Gipuzkoan egin dituenak, bereziki Brinkola eta Irun-Hendaia artean. Izan ere, gure ustez, egungo trazadura aprobetxatuz, gure lurraltearen hegoaldean trenbide-trazadura berri batek ingurumenean eta paisaian izango lukeen eragina saihesten da.

Obra horien artean daude Irungo eta Donostiako geltokietan hirugarren trenbide-haria ezartzeko egiten ari direnak, eta ADIFek eta ETSk beharrezko neurriak hartu behar dituzte Gipuzkoako tarte osoan aldiriko nahiz distantzia ertaineko trenen zirkulazioan sortzen ari diren eraginak gutxitzeko.

3. Legazpiko Udalak Espainiako eta Euskadiko gobernuen artean lortutako akordioak babesten ditu, Gernikako Estatutua betetzearen esparruan, aldirien eskumena transferitzeko.
4. Legazpiko Udalak Garraio Ministerioari eskatzen dio behar diren obrak egin ditzala trenbide-pasaguneetan eta -geltokietan arriskuak saihesteko eta irisgarritasuna bermatzeko eta aldiriko zerbitzuetan erabateko normaltasuna bermatzen duten trenak egotea.



## MOCIÓN ALTERNATIVA. SERVICIOS ADIF Y RENFE

- 1- El Ayuntamiento de Legazpi quiere destacar la importancia de las obras que se están realizando en la actual red ferroviaria y que nos conectará el centro de la península con Gipuzkoa, Iparralde y Europa. Las inversiones del Ministerio Transportes y Movilidad Sostenible, van a suponer en todo el tramo gipuzkoano alrededor de 200 millones de euros lo que da idea del proceso de modernización de las infraestructuras ferroviarias en el trazado que recorre nuestro Territorio Histórico.
- 2- El Ayuntamiento de Legazpi reconoce y pone en valor las trascendentales obras de modernización y adaptación del ferrocarril a los estándares europeos, que ejecuta el Ministerio en Gipuzkoa, especialmente entre Brinkola e Irun-Hendaya. Todo ello porque entendemos que, aprovechando el actual trazado, se evita el impacto medioambiental y paisajístico que hubiera tenido un trazado ferroviario nuevo al sur de nuestro territorio.

Estas obras, entre las que se encuentran las que se están llevando a cabo para la implantación del tercer hilo ferroviario en las estaciones de tren de Irún y San Sebastián, exigen a ADIF, así como a ETS, que tomen las medidas necesarias para minimizar las afecciones que se están ocasionando en la circulación de trenes tanto de cercanías como de media distancia en todo el tramo gipuzkoano.

- 3- El Ayuntamiento de Legazpi apoya los acuerdos alcanzados entre los Gobiernos de España y Euskadi, en el marco del cumplimiento del Estatuto de Gernika, para la transferencia de la competencia de Cercanías.
- 4- El Ayuntamiento de Legazpi, insta al Ministerio de Transportes a realizar las obras necesarias para evitar riesgos y garantizar la accesibilidad en los pasos y estaciones ferroviarias y que haya trenes que garanticen la plena normalidad en los servicios de cercanías.





LEGAZPIKO  
UDALA

**MOZIOA**

**MOCION**

**GAIA: MOZIO ALTERNATIBOA. ADIF ETA  
RENFE ZERBITZUAK**

**TEMA: MOCION ALTERNATIVA. SERVICIOS  
ADIF Y RENFE**

**PROPOSATU DUTENAK: EAJ-PNV ETA  
EUSKAL SOZIALISTAK**

**PROPONENTES: EAJ-PNV Y SOCIALISTAS  
VASCOS**

**OSOKO BILKURA: 2024/02/28**

**PLENO: 28/02/2024**

**BOZKETAREN EMAITZA:**

- ALDE: 7 (EAJ-PNV ETA EUSKAL SOZIALISTAK)  
- AURKA: 5 (EH BILDU)  
- ABSTENTZIOAK: 1 (LEGAZPIKO BERDEAK).

**RESULTADO DE LA VOTACION:**

- FAVOR: 7 (EAJ-PNV, SOCIALISTAS VASCOS)  
- CONTRA: 5 (EH BILDU)  
- ABSTENCION: 1 (LEGAZPIKO BERDEAK)